

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeko erabakia

Legutioko Udalbatzak, 2016ko irailaren 21eko aparteko bilkuran, erabaki zuen berariaz indargabetzea euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza. Beraz, iragarki hau argitaratzen da, dagozkion ondorioak izan ditzan eta guztiek jakin dezaten, honako hauek xedatutakoa betetzeko: apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan; eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onartzen duenak, 56. artikuluan.

Legutio, 2016ko irailaren 22a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA